



Edukia

2

Biztanle adinduentzako egoitzen egungo egoera

5

■ Lurraldean gertatutako hedakuntza orekatua

6

Biztanle adinduentzako egoitzetako zerbitzuetan jardunean ari den langileria

8

Plazen kostua eta egoitzetako gastua

9

■ Oinarrizko bost ideia

Biztanle adinduentzako egoitzetako arreta Gipuzkoan

Gaur egun, Gipuzkoako egoitzetan biztanle adinduei bideraturiko 5.389 plaza daude, eta horietatik % 83 ardura publiko foralekoak dira –kontuan hartuz titulartasun forala eta plaza kontzertatuak–. Ia-ia lau mila langilek betetzen dute berauen jardura sektore honetan, eta horietatik % 90 emakumeak dira, eta % 62 dira adinduen arretan zuzenean jarduten duten langileak. Bestalde, urteko 180 milioi eurokoa da baliabide horretara bideratzen den gastu publiko eta pribatua. Administrazio publikoek –gehienbat, Gipuzkoako Foru Aldundiak– bideratzen dute horretarako finantziazio nagusia, izan ere, administrazioek eginiko ekarpenen bidez jasotzen da guztirako gastuaren % 58, eta erabiltzaileen ekarpenek finantzatzen dute % 40 inguru.


Biztanle adinduentzako egoitzen egungo egoera

Gipuzkoan 65 urtetik gorako biztanleentzako ia sei mila plaza daude egoitzetan, eta horietatik guztietatik % 90 inguru daude egoitza-zentroetan eta beste % 10 etxebizitza komunitario edo tutoretzapeko apartamenduetan. Egoitzetako arretaren estaldura bateratua –kontuan hartuz egoitzak, etxebizitza komunitario eta tutoretzapeko apartamenduak, zeinahi ere den berauen titulartasun edota finantzaziorako iturria– 4,10 plazakoa da 65 eta urte gehiagoko 100 pertsonetikiko. Beste euskal lurraldeetan biltzen den zifra baino apalagoa da hori, eta baita ere Estatu espainiarra osotasunean edota ELGA osatzen duten herrialdeekin alderatzean. Halere, nabarmendu behar da Gipuzkoan ardura publikoa duten egoitzetako plazzen estaldura (3,6 plaza 65 eta urte gehiagoko 100 pertsonetikiko) Bizkai (2,82), Araba

(3,3) edo Estatu osokoa (2,16) baino altuagoa dela. Gipuzkoak besteen aldean egoitzen estaldura baxua du ezaugarri, baina edonola ere, ardura publikoa nagusitzen da gehienez.

Ardura foraleko egoitzetako plazak (hau da, titulartasun forala duten egoitza-zentroetako plazak eta foru-administrazioarekin kontzertaturiko plazak) 4.489 izatera heldu ziren 2015. urtearen amaieran, eta kopuru hori egoitzen eskaintza osoaren %83a zen. Azkeneko urteotan horrelako plazzen hazkundera motela gertatu arren (2008. urtetik 302 plaza berri), estaldura gutxika beheratzen joan da, eskuragarri zeuden plaza horien aldean biztanleria adindua azkarrago hazi delako. Dena dela, euskal lurraldeen arteko estaldura forala alderatzean, plaza propioak, kontzertatuak eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoen (ZLPE) bitartez finantzatutako plazak batuz gero, nabarmentzen da Gipuzkoak duela estaldurarik altuena.

Biztanle adinduentzako egoitzetako plazzen estaldura titulartasunaren arabera, kontuan hartuz ZLPE, 2015. (65 eta urte gehiagoko 100 pertsonetikiko plazak)




Iturriak: Araba: Arabako Foru Aldundia; Bizkaia: 2015eko Memoria. Gizarte Ekintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoa: Zerbitzuen Zorroa. 2015eko Gehigarria. Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.


Hiru lurraldeetako eskaintza alderatzean, nabarmentzen da Gipuzkoan ageri den plaza propio eta erakunde pribatuekin kontzertaturiko (gehienbat irabazi-asmo gabekoak) eta udal-administrazioen plaza horien arteko banaketaren oreka. Arabako eskaintzan indarririk gehien dute plaza propio eta Zerbitzuari Loturiko Prestazioen (ZLP) bitartez finantzatutako plaza horiek, eta Bizkaiko eskaintzaren zatirik handiena kudeatzen da erakunde pribatuekin kontzertaturiko plazen bitartez.

Plaza horien eskariari dagokionez, nabarmendu behar da 2013. urtetik aurrerantzean suspertu egin dela Gipuzkoako egoitzetarako plazen eskaria, eta horrek sortu du itxarote-zerrendak haztea. Eskura dauden 2015eko Abenduaren 31ko datuen arabera, pertsona adinduentzako egoitza-zentroetan sartzeko zain zeuden 746 biztanle, eta zerbitzua eskatu eta sartu bitarteko tartea 139 egunekoa izan zen.

Itxaroteko zerrenda



Itxaroteko epea



*Adierazten du zerbitzua lortzeko eskaria eta sartu bitartean igarotzen diren egun naturalen batz bestekoa, eta azaltzen du urte bakoitzean baliabide hori lortu duten biztanleen zenbatekoa.

Iturria: Behagi. Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Lurraldearen ikuspegiari helduz gero, nabarmentzen da plaza horien gabezia altuena –Donostia albo batera utzita– Buruntzaldea eta Oarsoaldean gertatzen dela, 100 eta 107 biztanle zain dituzte

itxarote-zerrendan, hurrenez hurren. Halaber, plaza lortzeko eskaera eta sarbiderako epeak kontuan hartuz gero, azpieskualde horietan gertatzen da egun gehiagoan zain egon beharra.

Plaza foralak Abenduaren 31n, pertsona adinduentzako egoitza-zentroetako itxaroteko zerrenda eta epeak, azpieskualdeen arabera. 2015

	Plaza foralak Abe. 31n	Itxaroteko zerrenda	Itxaroteko epea (egunak)
Buruntzaldea	257	100	201,1
Oarsoaldea	332	107	181,6
Bidasoaldea	426	72	183,7
Leintz Ibarra	350	62	200,6
Donostia	1.476	173	108,9
Urola Garaia	166	35	124,6
Tolosaldea	332	48	151,7
Urola Kostaldea	198	32	123,4
Deba Kosta	96	19	80,7
Deba Erdia	286	35	84,5
Iraurgi	197	23	138,8
Oria Garaia	258	29	124,8
Bergaraldea	99	8	63,2
Gipuzkoa	4-473	743	138,5

OHARRA: ez dira kontuan hartzen aldi baterako plazak. Itxaroteko epeak adierazten du urte bakoitzean baliabide hori lortu duten biztanleen kasuen arabera zerbitzua lortzeko eskaria eta sarbidearen bitartean igaro diren bataz besteko egun naturalak.

Iturria: Behagi. Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Lurraldean gertatutako hedakuntza orekatua


Gipuzkoako egoitzetako zerbitzuen sarearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da lurraldean modu orekatu batean gertatu dela bere hedakuntza, izan ere, plaza foral horien estaldura % 2,5etik azpikoa da Deba Kosta, Buruntzaldea eta Oarsoaldearen kasuetan soilik. Halaber, Gipuzkoa egituratzen den hamahiru azpieskualdeetatik seien kasuan horrelako 3 plaza foral baino gehiago dituzte 65 eta urte gehiagoko 100 pertsonetikiko

Eboluzioari dagokion ikuspegiari kontu hartuz gero, nabarmentzen da gutxitu egin direla Gipuzkoako azpieskualdeen artean zeuden aldeak azkeneko zortzi urteotan. Alde batetik, 2008. urtean % 4ko estaldura gainditzen zuten azpieskualdeetan

(Donostia, Tolosaldea eta Deba Erdia) gutxitu egin da biztanleko plaza horien kopurua, eta hazi egin da plazan estaldura, lehenago estaldura apalagoa zuten azpieskualde horietan. Halere, plaza foral horien kopurua hazi arren, Oarsoaldearen kasuan ez da nahikoa izan estaldura epe horretan handiagoa izateko. Estaldurarik apalena azaltzen den beste bi azpieskualdeetan (Deba Kosta eta Buruntzaldea), estaldura hori orekatua mantendu da 2008 eta 2015 urteen artean.

Azkenik, nabarmentzekoa da Bidasoaldea eta Urola Kostaldean eginiko esfortzua, izan ere, plaza foral horien kopurua 65 eta 122 plazetan hazi egin delako, hurrenez hurren.

Biztanle adinduentzako egoitzetako zerbitzuetan dauden plaza foralak azpieskualdeen arabera. Gipuzkoa 2015 (%)



Iturria: Behagi. Gizarte Politikako Departamendua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Biztanle adinduentzako egoitzetako zerbitzuetan jardunean ari den langileria


Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistiketan eskuragarri dauden azkeneko datuen arabera, 2013. urtean lau mila lagunek lan egiten zuten biztanle adinduentzako egoitzetako arretaren sektorean, eta horietatik guztietatik emakumeak ziren ia %90. 2007. urtetik, %31 hazi da egoitzetan jarduten duten langileen ehunekoa, eta bitarte horretan, %8 gutxitu da Gipuzkoako lanaren merkatuan jardunean ari ziren landunen ehunekoa. Sektore horretan jarduten duten langileen garrantzia erlatiboa igaro da Gipuzkoako mila langileetatik 9 izatetik 13 izatera.

Hainbat datuen arabera nabarmentzen da sektore honetako langileen lan-baldintzak hobetu egin direla, soldatei dagokienean behintzat. Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen inkestaren arabera, krisialdia hasi zenetik, batz bestean %10eko hazkuntza gertatu da egoitzetako sektoreko langileen ordainsarrietan, eta urteko 33.729 eurotara heldu zen 2014. urtean. Gaur egun, kopuru hori EAEko ordainsarien media baino %5

gutxiagokoa da, baina zerbitzuen sektoreak jasotzen diren soldaten media baino pixka bat altuagoa da. Berez, euro konstanteetan –hau da, KPIaren urteroko igoerak albo batera utziz gero– nabarmentzen da ordainsariak gutxitu egin direla bai euskal ekonomia osoa kontuan hartuta bai zerbitzuen sektorea kontuan hartuta. Halere, 2008. urteko tankerako mailan mantendu da Gipuzkoako egoitzen sektoreko ordainsarien media hori.

Zentroen titulartasunari kontu hartuz gero, datuek erakusten dute ordainsarien eboluzioa desberdina izan dela. Zentro publikoetan gertatutako ordainsarien hazkuntza apalaren aldean, ordainsariak gehiago hazi dira 2002. urtetik titulartasun pribatukoak diren zentroetan. Izan ere, batz besteko oso ordainsari apalak izatetik, urteko %4,6 hazi dira Gipuzkoako egoitza-zentro pribatuetako ordainsari horien batz bestekoak, eta bitarte horretan, urtetik urterako Gipuzkoako zentro publikoen batz besteko hazkuntzea %1ekoa izan da, edo %2,6koa izan da Bizkaiko zentro pribatuetan. Bi sare horiek kontuan hartuz gero, EAEko lurraldeen artean Gipuzkoan hazi dira gehien ordainsarien media horiek.

Hainbat sektoreetako landunen eboluzioa. Gipuzkoa 2002-2013



Iturriak: (1) E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak. 15 plaza eta gehiago dituzten egoitzen inguruko datuek, gizarte-zerbitzuen osotasunaren inguruko datuek bezala, kontuan hartzen dituzte sektore horietan urte bakoitzean jarduten duten langileen zenbatekoaren media, eta bertan zenbatzen dira langile propioak eta arreta zuzena eskaintzen duten azpikontratatutako langileak; (2) MEYSS. Gizarte Segurantzaren Afiliatutako Langileak. Urte bakoitzeko Abenduaren 31ko datuak.


Gizarte-zerbitzuetako langile eta bestelako jardueretako sektoreen urteko ordainsarien batz bestekoaren eboluzioa. Gipuzkoa/EAE. 2008-2014 (milaka euro konstantetan)



OHARRA: Gipuzkoako biztanle adinduentzako egoitzetako zerbitzuen inguruko datuak salbu, EAEkoak dira grafiko honetako beste datu horiek guztiak.

Iturriak: E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak; INE. Laneko Kostuen Urteroko Inkesta; INE. Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI).

Adinduentzako egoitza-zerbitzuetan jardunean ari diren langileen batz besteko ordainsarien urtetik urterako hazkunderaren media (euro konstantetan) zentron titulartasunaren arabera, 2002-2014 (%)



Iturria: E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak.


Plazen kostua eta egoitzetako gastua

Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikaren arabera, 2014. urteko Gipuzkoako egoitzetako plaza bakoitzaren kostuaren media –bertan kontuan hartuz egoitzak, tutoretzapeko apartamenduak eta etxebizitza komunitarioak– eguneko 80 euro izatera heldu zen, eta garai berean Araban 87 euro eta Bizkaian 67 euro izatera heldu zen. Eboluzioaren ikuspegia kontuan hartuz gero, nabarmentzen da hiru lurraldeetan gertatu den plaza bakoitzaren kostuaren hazkunde konstantea, baina Gipuzkoa izan da euskal lurraldeen artean zifra hori gehien hazi den lurraldea, hau da, euro korronteen arabera, plaza bakoitzaren kostuaren hazkunderen media %40koa izan da 2002 eta 2014 urteen bitartean, eta 57,3 euro izatetik pasa da 80,7 euro izatera. Bestalde, epe horren baitan, egoitza-zerbitzuetako plaza bakoitzaren gastu korronteen Araba eta Bizkaiko ehunekoaren hazkuntza izan da %10 eta %16koa, hurrenez hurren. Plaza bakoitzaren kostuaren hazkuntza hori lotzen zaio, hein batean, langileen ordainsariei izandako hazkunderari.


Biztanle adinduen egoitzetako gastuari dagokionez, azkeneko datuek (2013. urtea) azaltzen dutenez, Gipuzkoako horrelako zentroetara bideratu ziren 164,8 milioi euro, eta horretatik %58 administrazio publikoek zuzenean finantzatu zuten. Lurralde bakoitzean bizi den biztanleriaren arabera, Gipuzkoako biztanle bakoitzeko 665 eurokoa izan zen egoitzetara bideratutako gastu publikoa, Bizkaian 493 euro eta Araban 896 euro.

Eboluzioaren datuek erakusten dutenez, modu garrantzitsu batean hazi da horrelako zentroak finantzatzeko Gipuzkoan bideratutako gastu korrontea. Azkeneko hamabi urteotan, biztanle adinduentzako 15 edo plaza gehiago dituzten egoitza-zentroetara bideratutako dirua igaro da 63,9 milioi eurotik 164,8 milioi euro izatera, hau da, euro konstanteetan adierazitako %96ko hazkundera. Horrek esan nahi du, inflazioa kontuan hartu gabe, %10ean hazi dela urteroko egoitzetara bideratutako gastua. Gipuzkoako urtetik urterako hazkunderen eritimoa (%9) Bizkaikoaren tankerakoa izan da (%9,1), baina Arabak egoitzetara bideratutako gastuaren eritimo hori kokatu da %5,7 inguruan. Epe horretan metaturiko gastuaren hazkundera ia-ia %40 izatera heldu da Arabaren kasuan, eta ia-ia %100 –hau da, bitan biderkatu da gastua– Bizkai eta Gipuzkoako kasuetan.

Egoitzetako gastu korrontea. 2013 (milioi euro)



Egoitzetako gastu korrontea. 2013 (adindu bakoitzeko euroak)



Iturria: E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak.

Hein batean lurralde bakoitzean aztertutako epearen hasierako egoerak baldintzatu duen gastuaren hazkunderen gertatutako eritimo desberdinez gain, garrantzitsua da gastuaren hazkunde hori sortu duten faktoreak aztertzea. Grafikoak erakusten duen moduan, Bizkaiko gastuaren hazkundera gehienbat baldintzatu du sortu diren plaza berri horiek, eta Gipuzkoak izandako gastuaren tankerako hazkunderen maila hori gehienbat baldintzatu du plazaren arabera kostuaren hazkundera (%60) eta, bigarren maila batean, sortu diren plaza berri horiek. Modu horretan nabarmentzen da hasierako egoera, aurrekontuen eskuragarritasun, estalduraren maila edota kostuaren maila desberdin horien arabera, EAEko hiru Foru Aldundiek estrategia desberdinak hautatu dituztela azkeneko urteotan,

Oinarrizko bost ideia


- Gipuzkoak ezaugarritzat du gertuko beste lurralde batzuen aldean egoitzen guztirako estaldura apalago bat izatea, baina nabarmenki altuagoa da ardura publikoak babesturiko estaldura. Ardura publiko horren babesean dauden plazak pixkanaka hazten joan arren –302 plaza 2008 eta 2015 urteen bitartean–, aro horretan %8an beheratu egin da ardura foraleko izaera duten plaza horien estaldura, egoitzetako plazen kopurua baino azkarrago hazi delako 65 urtetik gorako biztanleria.
- Egoitza-zerbitzuetan jardunean ari den langileen zenbatekoa %31 hazi da krisialdia hasi zenetik, eta garai horretan %8an beheratu da Gipuzkoako ekonomiaren guztirako landunen zenbatekoa. Langileriarri dagokionean, trinkoa da egoitza-zerbitzuen sektorea, eta artaturiko pertsona bakoitzeko 0,5 langile ari dira jardunean.
- Azkeneko urteotan nabarmenki hobetu dira kontrataturiko langileen lan-baldintzak. Zentro publikoetako soldatak oso maila apalean igo diren bitartean, zentro pribatuetako soldatek hazkunde nabarmena izan dute 2002. urtetik.
- 2013. urtean, biztanle adinduentzako egoitzetara bideratutako gastua 164,8 milioi euro izatera heldu zen, orain dela hamarkada baten aldean bideratutako euro konstanteen kopurua bikoiztuz. Bizkaian gertatutakoaren aldean, non gastua tankerako proportzioan hazi den, Gipuzkoan bideratutako gastuaren hazkuntzaren zati handi bat gertatu da (hazkundearen %60) plaza bakoitzaren kostua hazi egin delako, kostu hau %40 igo baita 2002. urteaz ezker. Plaza berrien sorrerak, aldiz, gastuaren hazkundearen beste %40a ekarri du.
- Batz bestean, erabiltzaileek plaza bakoitzaren kostutik %42 ordaintzen dute, eta horretara bideratzen duten batz besteko kuota hileko 1.000 eurokoa da. Plaza bakoitzaren kostuaren aldean batz besteko kuota hori gutxiago hazi den heinean, modu arin batean beheratu da koordainketaren ehuneko hori azkeneko urte hauetan.

eta berauek eginiko gastuaren hazkuntza tankerakoa izan arren, gastu hori gertatzea faktore desberdinek baldintzatu dutela.

Azkenik, egoitzetako zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen kuota horien batz bestekoek –egoitzetako plaza horiek guztiak kontuan hartuta– zentro publikoetako plaza bakoitzaren kostuaren


%37 eta pribatuetako %46 osatzen dute, eta hilero mila euro ingurukoak dira. Azkeneko hamarkadan erabiltzaile bakoitzaren arabera gastu korranteak izandako hazkuntzaren erritmoa (urtetik urterako %3,3) erabiltzaile bakoitzaren batz besteko kuota baino pixka bat handiagoa izan da (%2,8), eta horren ondorioz, %44 izatetik %42ra gutxitu egin da koordainketaren ehunekoak.

Adinduentzako egoitza-zentroetako gastu korrontearen ehunekoaren hazkuntza (euro konstanteetan) eta gastuaren kontzeptuetako hazkundearen ehunekoaren banaketa, 2002-2013



Iturria: E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak.

Adinduentzako egoitza-zerbitzuetako gastu korrontea eta erabiltzaileen batz besteko kuotaren eboluzioa. Gipuzkoa 2002-2014 (euro konstanteetan)



Iturriak: E.O.E. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikak; INE. Kontsumoko Prezioen Indizea.